6332

EBAZPENA, 2008ko urriaren 28koa, Inmigrazio zuzendariarena. Honen bidez, 2008ko irailaren 2ko Aginduak araututako immigrazioaren eta kulturartekotasunaren arloan 2008ko ekitaldirako prestakuntzarako eta ikerketarako bekak jasotzeko hautagaiak aukeratzeko kide anitzeko organoaren partaideak izendatzen dira.

AURREKARIAK

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2008ko irailaren 2ko Aginduak (urriaren 8ko EHAA) immigrazioaren eta kulturartekotasunaren arloan prestakuntzarako banakako bi bekarako eta ikerketarako banakako bi bekarako deialdia egin du 2008ko ekitaldirako.

2008ko irailaren 2ko Aginduak araututako prestakuntzarako bi bekarako deialdiaren zazpigarren oinarriaren arabera eta ikerketarako bi bekarako deialdiaren zortzigarren oinarriaren arabera, aipatutako bekak esleitzeko sistema arrunta lehiaketa izango da, eta eskariak ebaluatzeko eta ebazpen-proposamena egiteko kide anitzeko organoa izendatuko da. Inmigrazio zuzendariak eta Inmigrazio Zuzendaritzako bi teknikarik osatuko dute organo hori.

Aurrekoarekin bat etorriz, hau

EBATZI DUT:

2008ko irailaren 2ko Aginduak arautu dituen bekei buruzko eskariak ebaluatu eta beka horiek esleitzeko proposamena egiteko, hautaketa-batzordea eratzea, eta ondoko pertsonak izendatzea esandako kide anitzeko organoaren partaide izateko:

Inmigrazio-zuzendaria: José Roberto Marro Ibarra.

Teknikariak: Josebe Alonso Marigómez
Edurne Ramón Olano

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urriaren 28a.

Inmigrazio zuzendaria,
JOSÉ ROBERTO MARRO IBARRA.

6332

RESOLUCIÓN de 28 de octubre de 2008, del Director de Inmigración, por la que se nombra a los miembros del Órgano Colegiado encargado de la evaluación de las solicitudes y de la selección de los y las candidatas a la concesión de becas de formación e investigación en el área de inmigración e interculturalidad para el período 2008, reguladas por Orden de 2 de septiembre de 2008.

ANTECEDENTES

La Orden de 2 de septiembre de 2008 (BOPV de 8 de octubre), del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, convoca dos becas individuales de formación y dos de investigación en el área de inmigración e interculturalidad para el periodo 2008.

La base séptima de la convocatoria de las dos becas de formación y la octava de la convocatoria de las dos becas de investigación de la Orden de 2 de septiembre de 2008 disponen que a fin de adjudicar las mencionadas becas por el sistema ordinario de concurso, se designará un órgano colegiado encargado de la evaluación de las solicitudes y de la formulación de una propuesta de resolución. Dicho órgano estará compuesto por el Director de Inmigración y dos técnicas de dicha Dirección.

De conformidad con lo anterior,

RESUELVO:

Constituir la Comisión de Selección para la evaluación de las solicitudes y la propuesta de concesión de becas reguladas en la Orden de 2 de septiembre de 2008 mediante la designación de las siguientes personas como miembros del mencionado órgano colegiado:

Director de Inmigración: José Roberto Marro Ibarra.

Técnicas: Josebe Alonso Marigómez
Edurne Ramón Olano

En Vitoria-Gasteiz, a 28 de octubre de 2008.

El Director de Inmigración,
JOSÉ ROBERTO MARRO IBARRA.